

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

- Ipuinen egitura



Hasiera

Pertsonaia nagusien aurkezpena eta non bizi diren.

Bazen behin tximeleta itsusi bat. Zelai batean bizi zen triste-triste, itsusia zelako.

Korapiloa

Arazoa adierazi eta konponbidea.

Egun batean lorategi batera joan eta txoratuta geratu zen halako lore ederrak ikustean. Negar egin zuen bera hain itsusia zela ikusita. Eta malkoekin loreak busti ziren eta lore bakoitzari bere koloreko tinta atera zitzaion. Tximeleta konturatu gabe, tinta haietan busti zen eta oso kolore politak hartu zituen.

Bukaera

Azaldu pertsonaiak nola geratu diren.

Handik aurrera tximeleta hura denetan politena izan zen eta oso pozik bizi izan zen.

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Barbantxo

Behin batez herri txiki batean aita, ama eta Barbantxo bizi ziren. Barbantxo txiki, txiki, txikia zen. Bere aitak basoan egiten zuen lan, aizkolaria zen. Egun batean ama gaixorik zegoen eta ohean gelditu zen, horregatik Barbantxok prestatu behar zuen janaria. Amatxok esan zion:

- Kontuz ibili eta ez erori.

- Ez ama, ez naiz eroriko, esan zuen Barbantxok.

Baina Barbantxo bazkaria prestatzen ari zen eta eltze barrura txirrist egin eta erori zen. Igotzen hasten zen, baina, txirrist egiten zuen. Azkenean kostata, baina lortu zuen eltze gainera igotzea. Bazkaria hartu, eta, astoaren belarrian sartuta, mendira joan zen. Bidean mutil batzuk topatu zituen, haiek astoa bakarrik zihoala pentsatu zuten, eta dili! Dale! Astoa joka hasi ziren. Barbantxok oso haserre esan zuen:

- Arraioa! Astoa pakean utzi.

Eta mutilek ihes egin zuten beldurtuta. Bueltan lehengo mutilak topatu zituen:

- Nora zoazte mutilak? -galdetu zuen Barbantxok.-

- Apaizaren etxera, txerria hil du eta debalde jango dugu.

Eta denak saltoka eta korrika joan ziren. Apaizaren etxean Barbantxok txerriaren belarritikan oihuka esan zuen:

- Hau goxoa apaiz jauna!

Apaiza etorri zen eta hasieran ez zuen inor ikusi, gero Barbantxo topatu zuen txerriaren belarrian. Barbantxok ihes egin zuen eta belarretan ezkutatu zen, han behi bat zebilen eta belarreakin batera Barbantxo jan zuen behiak. Ilunabarrean Maddi ikuilura joan zen, Maddi apaizaren neskamea zen eta han ahots bat entzuten zuen.

- Hemen nago! Hemen nago!

Hasieran Maddi beldurtu egin zen, baina gero Barbantxo ezagutu zuen.

- Non zaude Barbantxo?

- Behiaren barruan!

- Eta noiz irtengo zara?

- Behiak tur-tur egitean!

Behiak kaka egin zuen Barbantxo zikin-zikina irten zen. Gero oso ederki bizi izandu ziren, baina, hau da kusidatea eh?

- Zer da hori? Behiaren kaka, ezta?

- Benetan txikia da Barbantxo ezta?

- Bai, oso txikia.

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Bremengo musikariak

Errotari baten astoak bizitza osoa eman zuen irin zakuak lepoan hartuta hara eta hona. Lan eskerga egin zuen errota hartan, bai, baina zahartzaroa iritsi zitzaionean errotariak, zeken halakoak, oso gaizki tratatzen zuen. Horregatik astoak alde egitea erabaki zuen:

- "Bremenera joango naiz eta han musika ikasi eta musikari lanetan arituko naiz"

Bide bazterrean txakur bat aurkitu zuen. Belarriak behera begira zituen, triste.

- "Zergatik zaude hain triste?", galdetu zion astoak.

- "Zahartuta nagoenez eta ehizan ezin dudanez, nagusiak etxetik bota nau"

- "Etorri nirekin".

Eta elkarrekin joan ziren. Pixkat aurrerago katu bat aurkitu zuten, hura ere kopetilun.

- "Zaharraren zaharrez, saguak harrapatzeko ere ez naiz gai, eta etxeoandreak ito egin nahi nau".

- "Erdi gurekin!"

Ordurako hiru ziren taldean. Aurreraxeago oilar bat aurkitu zuten egoera berean: "zatoz gurekin Bremenera" eta lau taldea osatu zuten.

Ilunkaran etxe bat ikusi zuten. Hurbildu, leihotik kuku egin eta..... lapur taldea bertan! Baina ez pentsa gero animaliak beldurtu zirenik!

- "Ederra etxea!", pentsatu zuten "Hemen bai gustora biziko ginatekela".

Eta berehala etxe hura eskuratzeko modua asmatzen jarri ziren. Azkenean bata bestearen gainean jarri, laurak batera zarataka hasi eta holan uxatu zituzten lapurrak. Animaliak etxe barrura sartu ziren.

Lapurrak, ordea, etziren oso urruti joan eta euretariko bat bueltatu egin zen etxean nor zegoen ikustera. Ilunetan sartu zen. Lapur gaixoa! Etezkiek nolako harrera egingo zioten! Oilarrak kukurruku ozen bat egin zion belarrira, katuak erpeka, txakurrak izterrean kosk eta astoak ostikada handi bat jo zion. Lapurrak minduta eta izututa aldegin zuen.

- "Sorgin bat dago etxe horretan!", esan zien oihuka taldekideei. "Goazen hemendik! Goazen al bait arinen".

Bremenera bidean zihoazen lau animaliak etxe hartan bizitzen geratzea erabaki zuten, hain zeuden gustura!

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Igel erraldoia

Duela urte asko, aspaldi handian, igel erraldoi baten beldurrak bizi zen abenakitarren herria.

Errekak eta ibaiak hurrupatzen zituen igelak, eta abenakitarrak urik gabe ari ziren geratzen.

Beren tipiak bildu eta edateko ur bila abiatu ziren.

Abenakitarren buruzagia ez, hura bertan gelditu zen. Hari ez zion beldurrik ematen igel erraldoiak. Eta bazeukan asmo bat.

Aizkora hartu eta haritz handi bat hasi zen ebakitzen.

Baina ez zuen guztiz ebaki: igel erraldoia etorri arte itxaron zuen. Eta igel erraldoia haritzaren azpitik pasa zenean, abenakitarren buruzagiak, ezkutatua zegoen zokotik irtenda, azken aizkorakada jo zuen.

Errekak eta ibaiak hurrupatzen zituen igel erraldoiaren gainean jausi zen haritza, eta hil egin zuen.

Ur garden gozoa isuri zen haritzaren adarretatik.

Baina, bitartean, abenakitarrak iritsiak ziren zabalaren zabalez ura besterik ageri ez zuen ibai baten bazterrera. Dastatu zuten ur hartatik, eta gazia zela jakin zuten.

Nekaturik zeuden, egarriturik zeuden. Ez zeukaten indarrik ur edangarriaren bila aurrerago joateko.

Uhinek eraman zituzten, hondoratu egin ziren. Eta itsasoaren hondotik balea bana bihurturik azaleratu ziren.

Horregatik jaurtitzen dituzte baleek halako ur-zorrotadak: ur gozoko iturriak dauzkate gogoan.

Oraindik ez dakite beren buruzagiak hil egin zuela igel erraldoia.

Egunen batean, beharbada, igerian iritsiko dira haritz handiaren ibietaraino.

Hori da buruzagiak espero duena. Hantxe daukate zain, Adanak izeneko herrian, Quebec-en. Bisitan joaten bazarete, «kolipaio» esango dizue: «ongi etorri» esan nahi du abenaki hizkuntzan.

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Tximinoen laguna

Sung izeneko herri batean, urrun, Txina esaten zaion lurralde handian, tximinoak izugarri maite zituen haur bat bizi zen. Xanken zuen izena.

Xankenek egunero ematen zien jaten tximinoei.

Eta tximinoek ere izugarri mate zuten Xanken.

Batzuetan, berak jan behar zuen arroza, tximinoei ematen zien.

Tximinoen garrasiak egunero entzunda, Xankenek, azkenean, ulertu egin zuen tximinoek zer esaten zioten elkarri. Tximinoen hizkera konprenitu zuen.

«Tximinoen laguna» esaten zioten, eta Xanken harro zegoen horrela esaten ziotelako.

Baina halako batean lehortea iritsi zen lurralde hartara, lehorte handia. Errekak mehetu egin ziren, landareak ihartu egin ziren, abereek ez zeukaten zer jan, eta gizakiek ere gutxi.

Gero eta urriagoa zen, gero eta eskasagoa, tximinoen otordua. Eta ez zeuden pozik.

Xanken triste zegoen, tximinoak horrela ikusita.

Behin, beste janaririk ez eta zazpi gaztaina erakutsi zizkien.

—Hiru gaztaina emanen dizkizuet bazkaritarako, eta afaritarako lau gaztaina emanen dizkizuet.

Eta tximino guztiak garrasika hasi ziren.

Ez, ez, ez!

Ez zeuden konforme, gutxi iruditzen zitzaien.

Orduan honela esan zien Xankenek:

—Ongi da, arrazoia daukazue.

Isildu egin ziren tximinoak, adi.

—Lau gaztaina emanen dizkizuet bazkaritarako, eta afaritarako hiru gaztaina.

Eta hori entzunda, tximino guztiak hasi ziren jauzika eta bibaka, pozak zoratzen.

Horrela jarraitu zuen Xankenek tximinoen laguna izaten, euria berriz hasi zuen arte.

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Nola sortu zen Joantxo, beldurrik gabeko hartza

Egun ez da hartz askorik, baina lehen, Pirinioetan, Kantauritik Mediterraneoraino doan gure mendi-lepo luze horretan, hartz aunitz bizi zen. Artzainak, ikazkinak, egurketariak, ehiztariak ere bizi ziren mendi horietan. Hartzak haran edo ibar batetik bestera ibiltzen ziren, Euskal Herritik Biarnora edo Kataluniatik Aragoira joanez... Ibili haietan, ez zen harrigarria izaten hartzen bat edo bertze galtzea.

Aspaldi handiko garai haietan, leize zuloan aterpetu behar izan zen hartz bat, artzain borda batetik sobera urrun gabe. Asteak eta asteak ziren lanbroa altxatzen ez zela, eta hartzak ez zuen amildegiren betetik behera amildu nahi. Egon egin behar zuen. Tristerik zegoen, gogorra egiten zitzaion bakardade hura. Goiz batez ikusi zuen artzain bordatik emazteki bat jalgi zela egur bila.

Hartzak harrapatu eta bahitu egin zuen, leizera eraman zuen. Eta harritzar gaitz batez estali zuen leizearen sarrera.

Bederatzi hilabeteren buruan muttiko bat sortu zen.

Muttikoak lau urte bete zituelarik, honela erran zion amari:

—Ama, ez duzu mundua ikusi nahi?

Amak harrizarra erakutsi zion. Eta muttikoak ezkerreko eskuarekin heldu eta rast! libratu zuen leizearen sarrera. Lau urte zituen, baina hagitz hartzakume indartsua zen.

—Semetxo, aita azaltzen bada eta ikusten badu zer egin duzun, hil egingen gaitu.

Baina hartzakumeak beheko herrira eraman zuen ama.

Eta Joantxo, hauxe baitzen muttikoaren izena, eskolara hasi zen.

Eta haur guztiek trufaka:

—Hartzakumea! Hartzakumea!

Hartu zuen Joantxok lagun haietako bat zangoetarik, eta makila gisan erabiliz, astindu ederra eman zien eskolakideei.

Eta honela erran zion amari:

—Ama, banoa munduaren ikustera.

—Baina semetxo, zer galdu zaizu munduan?

—Beldurra ezagutu nahi dut —arrapostu zuen Joantxok.



4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Ama maisuarengana joan zen, eta maisuak:

—Nik ezagutaraziko diot beldurra.

Ganbara batera eraman zuen Joantxo. Kutxa handi bat zeukan han maisuak.

—Ireki ezazu kutxa! —manatu zion Joantxori.

Hala egin zuen gure muttikoak: ireki zuelarik, uso samalda bat jalgi zen barnetik, hegala Joantxoren aurpegian inarrosiz.

Egia erran behar baita, ikara ttipi bat eman zion.

—Ez dizu beldurrik eman? —egin zion galde maisuak.

—Ikara ttipi bat eman dit, baina ez nau beldurtu.

Eta, maisua, eskola eta ama utzirik, munduan aitzina joan zen beldurraren bila Joantxo hartzakumea.

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Tximinoa eta dortoka

Seychelle uhartediko 115 uharteetan handiena den Mahé izenekoan, Indiako itsasoan, tximinoa eta dortoka bizi ziren aspaldi handian.

Tximinoa maltzurra zen oso.

Dortokak ez zuen harekin topo egin nahi.

Tximinoa pozik bizi zen adarrik adar. Eskumenean zeukan jatekoa, ez zeukan nekatu beharrik.

Dortokak berriz bide luzeak egin behar izaten zituen janari bila.

Halako batean, arroza erostera irten zen dortoka goizean goiz.

Arratsaldean, zamatuta etxera zetorrela, sua pizteko egurrik ez zeukala oroitu zen.

Arroz karga bide bazterrean utzi eta txotxak eta adar iharrak biltzen hasi zen.

Tximinoa, adarrik adar, arroza zegoen lekuraino heldu zen.

Egur sortarekin azaldu zenean, tximinoa bere zaku gainean jarrita zegoela ikusi zuen dortokak.

—Begira zer aurkitu dudan bidean!

—Nire arroza da! —esan zuen dortokak, larri.

—Zure arroza? —erantzun zion tximinoak maltzur—. Nirea da, bidean aurkitu dut.

Dortoka negarrez hasi zen.

Baina tximinoak arroz zakua eraman zuen, bere lagunekin jateko.

Dortoka gau eta egun ibili zen janari bila bere umeentzat.

Egun batean, tximinoa ikusi zuen lo adar batean, buztana bideraino zintzilik.

Orduan dortokak hortz artean hartu zuen tximinoaren buztana.

Tximinoa aztoratuta esnatu zen.

—¿Zer da hemen? ¿Nork egin dio haginka nire buztanari?

—Ez da zurea —erantzun zuen dortokak—, nirea da buztan hau, bidean aurkitu dut.



4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Tximinoa adarretan gora egiten saiatu zen, baina dortokak gogor heltzen zion buztanetik.

Apurka eta arrastaka, epaitegiraino eraman zuen.

—Arroza neurea zen!

—Buztana neurea da!

—Arroza neurea zen!

—Buztana neurea da!

Epaileak, noizbait, ulertu zuen zer gertatzen zen.

Eta atezain zegoen soldadu bati deitu zion.

—Moztu ezazu tximino maltzur honen buztana!

Tximinoa garrasika hasi zen:

—Erruki! Erruki! Buztanik gabeko tximino bat! Barre egingo didate denek! Erruki!

Baina isiltzeko agindu zion epaileak.

—Tximinoak bidean aurkitzen duena tximinoarena baldin bada, dortokak bidean aurkitzen duena dortokarena da.

Eta handik atzera tximino hari «buztanik gabeko lapurra» esan zioten.

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Neska bihurtu zen sagua

Lau kastako India zaharrear, brahman batek, alegia, kasta goreneko jaun batek, plazako iturri ondoan zebilela, sagu bat ikusi zuen jausten belearen mokotik.

Hartu eta etxera eroan zuen; zaindu egin zuen eta horren polito sendatu zuen ezen sagua neskatila bihurtu zen. Itzelezko poza hartu zuen brahmanak: ez zeukan haurrik eta beti eduki gura izan zuen alabaren bat.

Neskatila hazi egin zen.

Brahmanak galdetu zion ez ote zuen lagunik hartu behar. Biloba bat eduki gura zuen.

Alabak esan zion naturako izakirik indartsuenaren bila zebilela.

—Orduan, zuk gura duzuna eguzkia da —erantzun zion brahmanak.

Eta hurrengo egunean honela esan zion eguzkiari:

—Inork garaituko ez duen senarraren bila dabil alaba, gura duzu ezkondu?

Baina eguzkiak honela esan zion:

—Hodeiak gain hartzen dio nire indarrari.

Brahmanak galdera berdina egin zion hodeiari.

—Inork garaituko ez duen senarraren bila dabil alaba, gura duzu ezkondu?

Baina hodeiak honela esan zion:

—Haizeak naroa batetik bestera.

Brahmanak alabarekin ezkontzeko eskatu zion haizeari.

Baina haizeak honela erantzun zion:

—Nire indarra baino sendoagoa da mendia.

Brahmanak alabarekin ezkontzeko eskatu zion mendiari.

Baina mendiak honela erantzun zion:

—Sagua ni baino indartsuagoa da, alde guztietatik zulatu eta neure erraietaraino sartzen da.



4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Brahmanak alabarekin ezkontzeko eskatu zion saguari.

Eta aspaldi zebilenez emazte bila, baietz esan zion saguak, ezkonduko zela alabarekin.

Brahmanak galdetu zion alabari saguarekin ezkondu gura zuen, eta honela erantzun zion alabak:

—Bai, ezkondu gura dut mendia baino, haizea baino, hodeia baino, eguzkia baino indartsuagoa den saguarekin.

Eta brahmanak hauxe pentsatu zuen:

«Honetara iristeko, zertarako bihurtu nuen neska nik sagu hura?»

Eta egun hartatik atzera alaba osteraz zelan sagu bihurtu hasi zen ikasten, mendia baino, haizea baino, hodeia baino, eguzkia baino indartsuagoa den saguarekin zorionean bizi zedin.

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Jauregiko sagua eta baratzeko sagua

Italian, Campobasso izeneko herri bateko jauregian, sagu bat bizi zen. Ez zitzaizkion interesatzen aretoak edo lorategi botanikoa. Sukaldea maite zuen saguak.

Sukaldea kea, usainak, ogi apurrak...

Eta gazta bat mahai gainean!

Eta sukaldaria oilategian!

Saguak mahaiaren hankatik gora ekin zion, konturatu gabe armairuaren gainean...

Beste gazta bat?

Ez, armairuaren gainean aretoak eta lorategi botanikoa maite ez zituen beste lagun bat zegoen. Hark ere sukaldea maite zuen.

Bai: mahaiaren gainean gazta, armairuaren gainean katua.

Eta mahaiaren gainera egi zuen jauzi katuak.

Saguak mahaiaren hankan behera egin zuen lurreraino, eta atearen zirrikitutik eman zion ihesari.

Ihes eta ihes joan zen baratzeko saguarenera iritsi arte. Hark ez zeukan ez aretorik ez lorategirik: lurpeko zuloan bizi zen.

Hantxe geratu zen ikara joan zitzaion arte.

Ahaztu egin zen saguaz, baina ez jauregiko sukaldeaz. Halako usain gozoa zegoen han, hainbeste ogi apur...!

Eta egun batean honela esan zion jauregiko saguak baratzeko saguari:

—Baratzeko sagu barazki-jalea, ezagutu nahi al duzu nire osabaren jauregia?

Noski ezagutu nahi zuela jauregia baratzeko saguak! Jakin nahi zuen nola bizi ziren han.

Eta jauregira joan ziren biak.

Igo ziren leihoraino eta...

Urdaiazpikoa mahai gainean!

Eta sukaldaria ikuiluan!



4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Baratzeko saguak ez zekien zer zen hura.

—Oso goxoa da! —esan zion jauregiko saguak.

Eta besterik gabe, beldurra ahaztuta, sukaldean sartu zen jauregiko sagua.

Mahaiaren hankan gora abiatu zen...

Urdaiazpikoraino iritsi zen...

Ahoa zabaldu zuen...

Baina urdaiazpikoari haginka egin baino lehen...

Piztia bat sortu zen labetik! Bibote luzeko eta atzapar zorrotzeko piztia bat!

— Iii... iii... iii...

Baina ezin izan zuen ihes egin. Katuak atzaparretan zeukan harrapatua.

— Iiii... iiii... iiii...! Iiii... iiii... iiii...!

Eta leihoan gelditua zen baratzeko saguak honela esan zuen bere artean:

«Osabak iloba horrela hartzen badu, nola hartuko ote du ezagutzen ez duena!»

Eta bere zulora itzuli zen lasterka bizian, jauregian nola bizi ziren ondo ikasita.